

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

10. zenbakia

Data 2009-01-16

1077 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA-DIPUTATU NAGUSIA

1/2009 Foru Dekretu Araua, zerga alorreko presazkoa, urtarrilaren 13koa, zenbait zergak aldatzen dituen.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1/2009 FORU DEKRETU ARAUA, zerga alorreko presazkoa, urtarrilaren 13koa, honako zergak aldatzen dituena: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga.

Araudian hainbat aldaketa sartzten ditu 2008ko abenduaren 23ko 4/08 Legeak, Ondarearen gaineko Zergaren karga kendu, Balio Erantsiaren gaineko Zergan hileko itzulketaren sistema orokortu eta zerga araudian beste aldaketa batzuk sartzten dituenak. Hasieran aipatutako aldaketek eragina dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez itundutako zerga batzuetan. Besteak beste, ondoko hauen funtsezko erregulazioari eragiten diote aldaketek: Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga –sozietate eragiketen modalitatean–, zerga bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga.

Bestetik, nekazari eta abeltzainei Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotak itzultzeko kasu bat jasotzen du 2008ko abenduaren 23ko 2/08 Legeak, Estatuaren 2009ko Aurrekontu Orokorrerak, berrogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak 21.bat, 26., 30., 32. eta 33.bat artikuluetan jasotakoan oinarrituta, aipatu zergek une bakoitzean Estatuak finkatutako arau funtsezko eta formalei jarraitu behar diete, salbu aurkezteko eredu eta epeen onarpenari dagokionez.

Horrek beharrezko egiten du Gipuzkoako zerga araudian jasotzea bai abenduaren 23ko 4/08 Legeak, Ondarearen gaineko Zergaren karga kendu, Balio Erantsiaren gaineko Zergan hileko itzulketaren sistema orokortu eta zerga araudian beste aldaketa batzuk sartzten dituenak, ekarri dituen aldaketak, eta bai Estatuak 2009ko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 23ko 2/2008 Legeak sartutakoak, betiere aipatu diren zergetan dagokienez.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aldatzea 1999ko apirilaren 26ko 2/99 Foru Araua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena.

2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin, honako aldaketak sartzten dira Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauan:

Bat. Hirugarren paragrafo bat gehitzen zaio 30. artikuluan 4. apartatuko a) letrari. Hona edukia:

«Dena den, aitortzeko obligazio hori ez zaie aplikatuko 13.1.c) artikuluan aipatutako etekinei».

Bi. 31. artikulua indargabetzen da.

Hiru. 5. apartatua aldatzen da, eta 6. apartatua eransten zaio laugarren xedapen gehigarriari. Hona haien edukia:

«5. Adiskidantzazko prozedurak tramitatzean, ez da sortuko berandutza interesik.

6. 1. Adiskidantzazko prozeduretan, zorraren ordainketa automatikoki etenda geratuko da, interesatuak eskatuta, baldin eta bermatzen badira zorraren zenbatekoa eta etena eskatzean bidezkoak izan daitezkeen errekarguak, betiere arauz jasotzen denari jarraituz.

Ezin izango da zorraren ordainketa eten aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, etena bide administratiboan edo jurisdikzionaletan eskatu daitezkeen bitartean.

2. Bakarrik berme hauek onartuko dira aurreko zenbakian aipatutako eten automatikoa lortzeko:

a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.

b) Kreditu entitate edo elkarrekiko bermerako sozietate baten abal edo fidantza solidarioa, edo kauzio aseguruak ziurtagiria.

3. Adiskidantzazko prozedurek ez badute zor osoa hartzen, adiskidantzazko prozedurek eragindako zenbatekora mugatuko da apartatu honetan jasotako etena».

2. artikulua. Aldatzea 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzea.

Non eta ez den bestelakoa xedatzen, 2008ko urtarrilaren 26tik aurrerako ondorioekin, honela aldatzen da 1992ko abenduaren 102/92 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 37/1992 Legera egokitzen duena:

Bat. Honela idatzita geratzen da 4. artikularen bigarren apartatua:

«*Bi.* Enpresa edo lanbide jardura baten garapenean burututzat ulertuko dira:

a) Merkataritza sozietateek egindako ondasun salmentak eta zerbitzu prestazioak, haiek enpresariak edo profesionalak direnean.

b) Subjektu pasiboen ondare enpresarial edo profesionala osatzen duten ondasun edo eskubideetako edozein bere osoan edo zati batean hirugarrenei eskualdatzea edo haien erabilera lagatzea, baita Zergari lotuta dauden jardura ekonomikoak uztearen ondorioz egiten denean ere».

Bi. Honela idatzita geratzen da 5. artikularen lehen apartatua:

«*Bat.* Foru dekretu honetan xedatutakoaren eraginetarako enpresari edo profesionaltzat hartuko dira:

a) Artikulu honen hurrengo apartatuan definituriko enpresa edo lanbide jarduerak burutzen dituzten pertsona edo entitateak.

Hala eta guztiz ere, ez dira enpresari edo profesionaltzat hartuko doako ondasun emateak edo zerbitzugintzak soilik burutzen dituztenak, hurrengo letran ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

b) Merkataritza sozietateak, non eta aurkakoa ez den frogatzen.

c) Denboran zehar jarraian diru sarrerak lortzeko xedez ondasun gorpuzdun edo gorpuzgabe baten ustiapena dakarten ondasun emate edo zerbitzugintza bat edo batzuek egiten dituztenak.

Bereziki, ondasunen errentatzaileak hartuko dira halakotzat.

d) Lurren urbanizazioa edota eraikinen sustapen, eraikuntza edo birgaikuntza burutzen dutenak, horiek kasu orotan saltzera, esleitzera edo titulu bidez lagatzera destinatuak direnean, noizean behin bada ere.

e) Foru dekretu honen 25. artikuluko lehen eta bigarren apartatueta xedatutakoaren indarrez zergatik salbuetsita dauden garraiobide berrien emateak noizean behin burutzen dituztenak.

Letra honek aipatzen dituen enpresari edo profesionalak izaera hori bertan barne hartzen diren garraiobideen emateen ondorioetarako izango dute soilik».

Hiru. Honela idatzita geratzen da 7. artikulua 1. zenbakia:

«1. Subjektu pasiboaren ondare enpresarial edo profesionalaren zati izanik, bere bitartekoak erabilia jarduera enpresarial edo profesional bat garatzeko gai den unitate ekonomiko bat osatzen duten elementu gorpuzdun eta, hala badagokio, gorpuzgabe multzo baten eskualdaketa, alde batera utzita beste zerga batzuen esparruan eskualdaketa horri aplikaziozkoa zaion zerga erregimena eta foru dekretu honek 4. artikulua 4. apartatua jasotakoaren arabera dagokion erregimena.

Aurreko paragrafoan adierazitakoak ez bezala, zergari lotuta geratuko dira eskualdaketa hauek:

a) (Kendu da).

b) Foru dekretu honek 5. artikulua bat apartatuko c) letran jasotakoaren arabera bakarrik enpresari edo profesional izaera dutenek egindako eskualdaketak, eskualdaketa horien helburua ondasun lagapen soilak denean.

Horretarako, ondasun lagapen soilak hartuko da ondasun alokatuen salmenta, horrekin batera antolatzen ez denean giza alorreko eta alor materialeko produkzio faktorerik edo horietako bat, eta antolaketa hori dela medio ezin denean ulertu horrek unitate ekonomiko autonomoa osatzen duenik.

c) Foru dekretu honek 5. artikulua bat apartatuko d) letran jasotako eragiketak noizbehinka egiteagatik bakarrik enpresari edo profesional izaera dutenek egindako eskualdaketak.

Zenbaki honetan jasotakoaren ondorioetarako, garrantzirik gabekoa izango da eskuratzailerak berak erositako elementuak lotuta zeuden jarduera bera edo beste bat egitea, baldin eta eskuratzailerak frogatzen badu elementu horiek jarduera enpresarial edo profesional baten garapenari - lotzeko asmoa duela.

Baldin eta eskualdatutako ondasun eta eskubideak edo horien zati bat kentzen badira zenbaki honetan jasotakoaren arabera zergari ez lotzea dakarten jarduera enpresarial edo profesionalatik, jardueratik kendu izana zergari lotuta geratuko da foru dekretu honek kasu bakoitzerako jasotako moduan.

Zenbaki honetan jasotakoaren arabera zergari lotu gabe geratzen diren eskualdaketatik sartutako ondasun eta eskubideen eskuratzailerak subrogatuta geratuko dira, ondasun eta eskubide horiek direla-eta, eskualdatzailearen posizioan, foru dekretu honek 20. artikulua bat apartatuko 22. zenbakian eta 92.etik 114.era bitarteko artikuluetan jasotako arauen aplikazioari dagokionez».

Lau. 2008ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 34. artikulua:

«34. artikulua. Balio gutxiko ondasunen inportazioak.

Ondasunen inportazioak zergatik salbuetsiko dira horien balio osoa 150 eurotik gorakoa ez denean.

Honako hauek aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira:

1. Aduanako tarifen NK 22.03tik NK 22.08ra arteko kodeetan bilduta dauden produktu alkoholikoak.

2. Lurrinak eta koloniak.

3. Tabakoa, landugabea eta eskulandua».

Bost. 2008ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 35. artikulua:

«35. artikulua. Bidaia-erregimeneko ondasunen inportazioak.

Bat. Hirugarren herrialdeetatik etorritako bidaia-erregimeneko pertsonaletan barne hartutako ondasunen inportazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, jarraian adierazten diren muga eta beharrezkin:

1. Aipatutako inportazioek merkataritza izaerarik ez izatea, foru dekretu honen 21. artikulua 2. zenbakiko A) letraren d) letran aurreikusitako terminoetan.

2. Aipatu ondasunen balio osoa pertsona bakoitzeko 300 eurotik gorakoa ez izatea. Dena den, zergaren aplikazio lurraldera itsasoz edo airez etorritako bidaiariak direnean, balio osoaren muga 430 euro izango da.

Nolanahi ere, hamabost urtetik beherako bidaiariak direnean, balio osoaren muga 150 euro izango da.

Balio osoak aipatu kopuruak gainditzen ditunean, salbuespena aipatutako kopuruen mugaraino emango da, bereizita inportatu diren eta salbuetsita egon zitezkeen ondasunetarako.

Aurretik adierazitako salbuespen mugak finkatzeko, ez da konputatuko aldi baterako inportazioaren edo aldeztu aurretik egindako aldi baterako esportazio batetik eratorritako berrinportazioaren xede diren ondasunen balioa, ez eta bidaiariak normalean erabiltzen dituen botiken balioa ere.

Bi. Salbuespen honen ondorioetarako, bidaiarien ekipaje pertsonaltzat hartuko da haiek iristen diren momentuan eta ondoren aduanan aurkeztzen duten ekipaje multzoa, betiere irteteko momentuan frogatzen bada garraiatzen dituen enpresan norberarekin eramandako ekipaje gisa erregistratu zirela.

Ez dira ekipaje pertsonaltzat hartuko kantitate hauek gainditzen dituzten erregaiak:

- a) Garraiobide motordunetako erregai gordailu normaletan jasotakoak.
- b) Erregai gordailu eramangarrietan jasotakoak, gehienez 10 litroraino.

Hiru. Lehen apartatuan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, ondorengo ondasun inportazioak zergatik salbuetsita egongo dira:

- a) Tabako laboreak:
 - Zigarriloak: 200 unitate.
 - Zigarrilo puru txikiak (gehienez unitateko 3 gramo pisatzen duten zigarriloak): 100 unitate.
 - Zigarro puruak: 50 unitate.
 - Erretzeko tabakoa: 250 gramo.

Bidaiari guztientzat, tabako laboreen edozein konbinaziori aplikatu ahal izango zaio frankizia, baldin eta frankizia baimendu bakoitzean erabilitako portzentajeen guztizkoa ez bada % 100etik gorakoa.

- b) Alkoholak eta edari alkoholikoak:
 - %22ko bolumenetik gorako graduazio alkoholikoa duten edari destilatuak eta edari espiritu-suak; % 80ko bolumena edo handiagoa duen alkohol etiliko ez-desnaturalizatua: 1 litro, guztira.
 - %22ko bolumeneko graduazio alkoholikoa edo txikiagoa duten edari destilatuak eta edari espiritu-suak, ardoa edo alkohola oinarri duten aperitiboak, tafia, sakea edo antzeko edariak; ardo apardunak eta ardo gozoak: 2 litro, guztira.
 - Beste ardo batzuk: 4 litro, guztira.
 - Garagardoa: 16 litro, guztira.

Bidaiari guztientzat, aipatu alkohol moten eta edari alkoholikoen arteko edozein konbinaziori aplikatu ahal izango zaio frankizia, baldin eta frankizia baimendu bakoitzean erabilitako portzentajeen guztizkoa ez bada % 100etik gorakoa.

Ondasun hauen balioa ez da konputatuko aurreko lehen apartatuan adierazitako balio osoaren mugak finkatzeko.

Hamazazpi urte baino gutxiagoko bidaiariak ez dute izango aurreko apartatu honetan adierazitako salbuespenik.

Lau. Bidaiaria igaroaldi erregimenean hirugarren herrialde batetik datorrenean eta ondasunak beste estatu kide bateko tributazio baldintza normaletan eskuratu direla akreditatzen duenean, bidaiarien erregimenaren babesean egindako ondasun horien inportazioa salbuetsita egongo da, aurreko lehen eta hirugarren apartatueta ezarritako balio osoaren eta kopuruaren mugei lotu gabe. Horretarako, ez dira igaroaldi erregimenekotzat hartuko zergaren aplikazio lurraldearen gainean hegan egin baina bertan lurra hartzen ez duten bidaiariak.

Bost. Artikulu honetan zergatik salbuesteko aurreikusitako mugak aipatu kopuruen hamarren batera murriztuko dira dena delako ondasunak nazioarteko trafikoan erabilitako garraiobideetako langilegoak bere lanbide jarduera egitean burututako joan-etorrietan inportatzen dituenen».

Sei. Honela idatzita geratzen da 80. artikulua laugarren apartatua:

«Lau. Zergapetutako eragiketengatik jasanarazitako kuoten kredituak erabat edo zati batean kobraezinak direnean ere murriztu ahal izango da oinarri ezargarria.

Ondorio horietarako, kreditu bat erabat edo zati batean kobraezintzat joko da baldintza hauek betetzen direnean:

1. Zerga jasanaraziaren sortzapenetik urtebetea igaro direnean eta hortik eratorritako kreditua erabat edo zati batean kobratzea lortu ez denean.
2. Zirkunstantzia hori zerga honetarako exijitutako erregistro liburuetan jaso denean.
3. Eragiketaren hartzailea enpresari edo profesional gisa aritzea edo, bestela, eragiketa haren oinarri ezargarria 300 eurotik gorakoa izatea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utzita.
4. Subjektu pasiboak kreditua kobratzea eskatu duenean zordunaren aurkako erreklamazio judiziala eginez.

Aurreko paragrafoaren 1. zenbakian aipatutako urtebeteko epea amaitu ondorengo hiru hilabeteen barruan egin beharko da aldaketa, eta Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio arauzko epean.

Behin oinarri ezargarria murriztu ondoren, ezingo da berriro handitu, subjektu pasiboak kontraprestazio osoa edo zati bat kobratu arren, salbu hartzailea ez bada aritzen enpresari edo profesional gisa. Azken hori gertatzen denean, ulertu beharko da Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartuta dagoela hark jasotako kopuruetan, kontraprestazioaren zatiaren proportzio berean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, baldin eta subjektu pasiboak zordunaren aurka erreklamazio judiziala ez egitea erabakitzen badu, oinarri ezargarria berriro aldatu beharko du gorantz, bidezko kuota jasanarazteko zuzenketako faktura bat eginez hilabeteko epean erabaki hartatik aurrera».

Zazpi. Honela idatzita geratzen da 97. artikulua bat apartatuko 3. zenbakia:

«3. Inportazioen kasuan, Administrazioak egindako likidazioa jasotzen duen agiria edo, inportazioekin parekatutako eragiketak badira, haiek egin direla-eta sortutako zerga jasotzen duen autolikidazioa».

Zortzi. Honela idatzita geratzen da 99. artikulua laugarren apartatua:

«Lau. Kuota kenkaridunak jasan direla ulertuko da horiek jasan zituen enpresariak edo profesionalak faktura edo kenkari eskubidearen gainerako frogagiriak jasotzen dituen momentuan.

Faktura jaso ondorengo momentuan sortzen bada zerga, kuota horiek sortzean ulertuko da horiek jasan direla.

Foru dekretu honek 165. artikuluan aipatzen diren kasuetan, artikulu honetan aipatutako faktura egiten den momentuan ulertuko da kuotak jasan direla, salbu faktura egin ondoren sortzen bada zerga; izan ere, azken kasu horretan, kuota horiek sortzen diren momentuan ulertuko da jasan direla.

Foru dekretu honetako 98. artikulua lau apartatua aipatzen den kasuan, kenkari eskubidea sortzen den unean hartuko dira jasandakotzat kuota kenkaridunak».

Bederatzi. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 115. artikulua:

«115. artikulua. Itzulketa kasu orokorrak.

Bat. Likidazio aldi batean sortu diren kenkariak foru dekretu honen 99. artikuluan aurreikusitako prozedura bidez ezin egin izan dituztenean, kenkarien zenbatekoak sortutako kuotak gauditutako dituelako, subjektu pasiboek urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen aldeko saldoaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango dute urte horren azken likidazio aldiari dagokion autolikidazioan.

Bi. Dena den, foru dekretu honek 116. artikuluan aipatutako subjektu pasiboek izango dute likidazio aldi bakoitza amaitzean beren aldeko saldoaren itzulketa eskatzeko eskubidea.

Hiru. Artikulu honetan eta ondorengoan aipatutako kasuetan, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, hala behar izanez gero, itzulketa eskatzen den autolikidazioa aurkezteko jarrita dagoen epea amaitu eta ondorengo sei hilabeteen barruan. Dena dela, aipatu autolikidazioa epe horretatik kanpo aurkeztu denean, aurkezpen egunetik aurrera zenbatuko dira sei hilabeteak.

Autolikidazioak edo, bestela, behin-behineko likidazioak emaitza gisa itzultzeko kopuru bat ematen bada, Zerga Administrazioak ofiziozko itzulketa egingo du, geroago behin-behineko edo behin betiko bidezko likidazioak egitea eragotzi gabe.

2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 120., 121., 125. eta 126. artikuluetan eta hura garatzeko araudiak jasotako itzulketa prozedura erabiliko da.

Behin-behineko likidazioa apartatu honetako lehen paragrafoan jarritako epearen barruan egin ez bada, subjektuak eskatutako kopuru osoa itzuli beharko du ofizioz Zerga Administrazioak, geroago behin-behineko edo behin betiko bidezko likidazioak egitea eragotzi gabe.

Apartatu honetako lehen paragrafoan jarritako epea iraganez gero Zerga Administrazioari leporatu dakiokeen arrazoiagatik itzulketaren ordainketa agindu gabe, itzultzeko dagoen kopuruari 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26.6 artikuluan aipatutako berandutza interesa aplikatuko zaio, epe horren azken egunetik ordainketa aginduaren egunera bitartean, subjektu pasiboak hala erreklamatu beharrik izan gabe.

Apartatu honetan aipatutako ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordaintzeko era arauz zehaztuko dira».

Hamar. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 116. artikulua:

«116. artikulua. Likidazio aldi bakoitza amaitzean itzulketak eskatzea.

Bat. Subjektu pasiboek aukerakoa dute likidazio bakoitza amaitzean beren alde dagoen saldoa itzultzeko eskatzea, arauz jasotzen diren moduari, baldintzei eta prozedurari jarraituz.

Prozedura hori aukeratzen duten subjektu pasiboen likidazio aldia hilabete naturalarekin bat etorri behar da, kontuan hartu gabe haien eragiketa bolumena.

Bi. Foru dekretu honek 15. artikuluko bigarren apartatuan aipatzen dituen kasuetan, ondasunak zergaren aplikazio lurraldean inportatzen dituen pertsona juridikoak inportazioan ordaindutako kuota berreskuratu ahal izango du ondasunak beste estatu kide batera igorri edo garraiatu dituela eta estatu horretan zerga ordaindu duela kreditatzen duenean».

Hamaika. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 163. nonies artikulua:

«Lau. Entitate nagusiak erantzungo du, bere obligazioak betetzeari utzi gabe, betebeharrak hauek konplizteaz, betiere arauz ezartzen diren beharrez, muga eta baldintzak betez.

1. Informazio hau jakinaraztea Zerga Administrazioari:

a) Baldintzak bete izana, erabakiak hartu izana eta erregimen bereziaren aplikazioa aukeratu izana, horiek guztiak foru dekretu honek 163.quinquies eta sexies artikuluetan jasotakoak. Informazio hori guztia erregimen berezia aplikatuko den urte naturala hasi aurreko abenduan aurkeztu behar da.

b) Taldearen barruan erregimen berezia aplikatzen duten entitateen zerrenda. Hala badagokio, aurreko urtearen aldean osaeran edozein aldaketa izan duten entitateak identifikatu behar dira. Informazio hori urte natural bakoitzeko abenduan jakinarazi behar da, ondoko urteari dagokionez.

c) Erregimen bereziari uko egin izana. Aipatu ukoa horrek ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egin behar da, erregimen berezia aplikatzen duten entitate guztien ukoari dagokionez nahiz bakoitzaren ukoari dagokionez.

d) Foru Dekretu honek 163.sexies. bosgarrena artikuluan jasotzen duen aukera egin izana. Aipatu aukera horrek ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egin behar da.

2. Entitate taldearen baterako autolikidazio aldizkakoak aurkeztea. Hala badagokio, zerga zorra ordaindu edo konpentsazio edo itzulketa eskatu behar da. Baterako autolikidazio horietan, entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten entitateen banakako autolikidazioen emaitzak jaso behar dira.

Entitate taldearen baterako autolikidazio aldizkakoak aurkeztu aurretik, entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duen entitate bakoitzaren banakako aldizkako autolikidazioak aurkeztu behar dira.

Entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten entitateen likidazio aldia bat etorri behar da hilabete naturalarekin, kontuan hartu gabe zein den haien eragiketa bolumena.

Likidazio aldi baterako, entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten entitateen alde konpentsatzeko saldoen zenbateko osoa handiagoa denean entitate taldearen erregimen berezia aplikatzen duten gainerako entitateek likidazio aldi bererako duten ordaintzeko saldoen zenbatekoa baino, soberakina itzultzeko eskatu daiteke, betiere ez badira lau urte igaro soberakina sortu duten banakako autolikidazioak aurkezten direnetik aurrera. Foru dekretu honek 115. artikuluan hiru apartatuan jasotakoaren arabera egingo da itzulketa hori. Horrela gertatzen denean, ez da bidezkoa izango ondorengo baterako autolikidazioetan itzultzekoak diren saldoak konpentsatzea, itzulketa gauzatu bitartean igarotako denbora edozein izanik ere.

Entitate taldearen erregimen berezia aplikatzeari uzten bazaio eta taldeko entitateetarako konpentsatzeko diru kopuruak geratzen badira, entitate horiei egotziko zaizkie kopuru horiek, erregimen berezia aplikatu den azken urte naturaleko eragiketa bolumenaren proportzioan. Horretarako, foru dekretu honek 121. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

3. Informazio analitikoko sistema edukitzea, foru dekretu honek 163.octies.lehena artikuluan aipatzen dituen eragiketak egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren ondasun eta zerbitzuak egozteko arrazoizko irizpideetan oinarrituta. Sistema horretan jaso behar da aipatu ondasun eta zerbitzuak segidan erabili izana harik eta amaieran horiek taldetik kanpo aplikatu arte.

Informazio sisteman, egozpen irizpideei buruzko memoria sartu behar da. Aipatu irizpideak homogeneousak izan behar dira taldeko entitate guztietarako, eta erregimen berezia aplikatu den aldi guztietan mantendu, non eta zentzuzko arrazoiak direla medio ez diren aldatzen eta azken horiek memorian bertan ez diren jasotzen.

Zergaren preskripzio epean gorde behar da informazio sistema hori».

3. artikulua. Aldatzea 1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Araua, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena.

Honela aldatzen da 1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Araua, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena:

Bat. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 18. artikulua:
«18. artikulua.

1. Zergari lotutako sozietate eragiketak dira:
 - 1.— Sozietateen eraketa, haien kapitalaren gehikuntza eta murrizpena, eta sozietateen desegitea.
 - 2.— Kapital soziala gehitzea ez dakarten bazkideen ekarpenak.
 - 3.— Sozietate baten benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala Gipuzkoako lurralde historikora aldatzea, ez bata eta ez bestea aurretik Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta egon ez bada.
2. Ez dira zergari lotuta egongo:
 - 1.— Sozietateak berregituratzeko eragiketak.
 - 2.— Sozietateen benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.
 - 3.— Sozietate baten eraketa eskritura edo estatutuak aldatzea, eta, bereziki, sozietate baten xede soziala aldatzea, eraldatzea edo iraupen epea luzatzea.

4.— Akzio jaulkipeneko primaren bidez bakarrik eratutako erreserbaren kargura kapitala gehitzea.

3. Sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bidez beren jardunari lotutako eragiketak Espainiako lurraldean egiten dituzten entitateen kasuan, eta haien helbide soziala eta benetako zuzendaritzako egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan dagoenean, entitate horiek beharturik daude entitate espainiarrek ordaindu beharreko kontzeptu eta baldintza berdinetan tributatzera, aipatu eragiketei destinaturiko kapitalari dagokionez.

4. Helbide soziala eta benetako zuzendaritzako egoitza Espainia ez den Europar Batasuneko estatu kide batean duten entitateak ez dira lotuta egongo sozietate eragiketen modalitateari, sukurtsalen edo establezimendu iraunkorren bidez Gipuzkoako lurraldean egiten dituztenean beren trafiko eragiketak. Ez dira karga horri lotuta egongo, aipatu eragiketak direla-eta, benetako zuzendaritzako egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan duten entitateak ere, baldin eta horien helbide soziala Espainia ez den Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta badago».

Bi. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 19. artikulua:

«19. artikulua.

Sozietate eragiketen gaineko kargaren ondorioetarako, sozietateak berregituratzeko eragiketatzat hartuko dira Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/96 Foru Arauak 90. artikulua 1., 2., 3. eta 5. apartatueta eta 101. artikuluan jasota dauden sozietate bategite, bereizte, aktibo jartze eta balore trukatzeko eragiketak».

Hiru. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 21. artikulua:

«21. artikulua.

Zergadun gisa, aldeek aurka jarritako baldintzak edozein izanik ere, zerga ordaintzera behartuta egongo dira:

a) Sozietatea bera: Sozietateak eratzean, kapitala gehitzean, benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala lekuz aldatzean eta kapital soziala gehitzea ez dakarten bazkide ekarpenak egitean.

b) Bazkideak, jabekideak, komuneroak edo partaideak: Sozietateak desegitean eta kapital soziala murriztean, haiek jaso dituzten ondasun eta eskubideak direla-eta».

Lau. Honela idatzita geratzen da 22. artikulua:

«22. artikulua.

Subsidiarioki zerga ordaintzeaz erantzungo dute, sozietateak eratzean, kapital soziala gehitu eta murriztean, kapital soziala gehitzea ez dakarten bazkide ekarpenak egitean, sozietatea desegitean eta benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala lekuz aldatzean, zergari loturiko egintza juridikoan partaide izan diren eragile, administratzaile edo likidatzaileek, betiere erakarrirako kapitalaren kargu egin badira edo ondasunak eman badituzte».

Bost. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 23. artikulua:

«23. artikulua.

1. Nolabait bazkideen erantzukizuna mugatzen duten sozietateen kapital sozialaren eraketa eta gehikuntza egitean, oinarri ezargarria hasiera batean finkatzen den kopuru nominalaren berdina izango da, edo geroago gehitzen denarena, eskatutako jaulkipen primak gehituta, hala badagokio.

2. Aurretik aipatutakoak ez diren beste sozietate batzuek eragiketak egitean eta kapital soziala gehitzea dakarten bazkide ekarpenak egitean, oinarri ezargarria ekarpenaren balio garbia izango da; balio garbitzat hartzen da jarritako ondasun eta eskubideen balio erreala, horri gutxituta gastu eta karga kengarriak eta ekarpena dela-eta sozietatearen kargu geratzen diren zorren balioa.

3. Benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala lekuz aldatzean, benetako zuzendari-tzako egoitza edo helbide soziala tokiz aldatzen duen sozietateak lekuz aldatzea erabakitzen duen egunean daukan hartzeko likidoa izango da oinarri ezargarria.

4. Kapitela murriztean eta sozietatea desegitean, oinarri ezargarria bazkideei emandako ondasun eta eskubideen balio errealararen berdina izango da, gastuak eta zorrak kendu gabe».

Sei. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 41. artikulua 1. apartatuko B letraren 10. zenbakia:

«10. Aurreko 18. artikulua 2. apartatuko 1., 2. eta 3. zenbakietan eta 4. apartatuan aipatutako sozietate eragiketak, kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetan dagokien karga dela-eta».

Zazpi. 2008ko abenduaren 26tik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 41. artikulua 1. apartatuko B letraren 32. zenbakia:

«32. 1. Inbertsio kolektiboko erakundeek Legean araututa dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateak eratu, kapitela handitu, bat egin eta bereizteko eragiketak, eta entitate horiei ekarpen ez-diruzkoak egiteko eragiketak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren sozietate eragiketen modalitatean geratuko dira salbuetsita.

2. Lehenago aipatutako legean araututa dauden inbertsio fondo finantzarioak aurreko apartatuan ezarritako maila berean egongo dira salbuetsita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

3. Higiezin inbertsio kolektiboko erakundeak, gorago aipatutako legean araututakoak, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak badira eta beren xede sozial bakarra edozein motatako ondasun higiezin hiritar eskuratu eta sustatzea bada, lurren erosketa barne, horiek gero errentan emateko, erakunde horiek aurreko bi apartatuetan ezarritako tributazio erregimen berbera izango dute, baldin eta, horrez gainera, etxebizitzek, ikasle egoitzek eta adinduen egoitzek, guztiek batera, aktibo osoan hartzen duten portzentajea gutxienez % 50 bada arauz ezartzen den eran.

Era berean, erakunde horiek %95eko hobaria izango dute zerga honen kuotan, errentan ematera zuzendutako etxebizitzak erosteagatik eta errentan ematera zuzendutako etxebizitzak sustatzeko lurrak erosteagatik. Horretarako, ezinbestekoa izango da, dena den, ondasun higiezinak mantentze-ari buruz Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 29.5 artikulua c) eta d) letretan ezartzen dituen berariazko beharkizunak bi kasuetan betetzea, non eta, salbuespen gisa, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak horretarako baimen espresua ematen ez duen.

4. Sozietate eragiketen modalitateari lotutako eragiketa guztietatik salbuetsita egongo dira hipotekak titulu bihurtzeko fondoak eta aktibo finantzarioak titulu bihurtzeko fondoak».

4. artikulua. Aldatzea 1998ko martxoaren 3ko 20/98 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legera egokitze-koa.

Honela aldatzen da 1998ko martxoaren 3ko 20/98 Foru Dekretua, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/92 Legera egokitzen duena:

Bat. 2008ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela idatzita geratzen da 21. artikulua 2. apartatuko a) paragrafoa:

«a) Hamazazpi urtetik gorakoek beraiek hirugarren herrialdeetatik eramandakoak, baldin eta muga kuantitatibo hauek gainditzen ez badituzte:

1. Litro bat alkohol edo edari deribatu; edo
2. Bi litro tarteko produktu edo ardo apardun eta edari hartzitu; eta
3. Lau litro ardo bare, eta hamasei litro garagardo».

Bi. Honela idatzita geratzen da 70.1.a) artikulua 4. puntua:

«4. Bizpahiru gurpileko ziklomotorrak, eta kuadriziklo arinak».

Hiru. 5. apartatua gehitzen zaio 71. artikulua 5. apartatuari. Hona edukia:

«5. Zergaren oinarri ezargarria, 74. artikuluan jasotakoaren arabera zehaztua, % 30 murriztuko da, ibilgailu hauei dagokienez:

a) «Autokarabana» moduko ibilgailuak, hain zuzen 1998ko abenduaren 23ko 2822/98 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrari buruzkoak, 2007ko ekainaren 30ean II. eranskinerako indarrean duen bertsioaren arabera definituak.

b) Etxebizitza gisa erabiltzeko egokitutako ibilgailuak, hain zuzen 70. artikulua 1.a) apartatuko 1. zenbakiaren azken paragrafoan eta 8. zenbakiaren azken paragrafoan aipatutakoak».

Lau. Honela idatzita geratzen da 74. artikulua b) paragrafoa:

«b) Garraiobide erabiletan, zerga sortu den egunean duten merkatu balioa.

Aurretik atzerrian matrikulatuta egon diren eta Espainian ibilgailu erabili gisa lehen aldiz behin betiko matrikulatzen diren garraiobideen kasuan, merkatu baliotik gutxitu behar da, horren barruan sartuta dagoen neurrian, kengarriak izan gabe exigigarriak izan diren zeharkako zergen kuoten hondar balioa, garraiobide berri moduan Espainian lehen aldiz behin betiko matrikulatuz gero. Horretarako, aipatu hondarrezko zenbatekoa zehazteko, portzentaje hau aplikatu behar da zerga sortzean garraiobide erabiliak duen merkatu balioaren gainean: Zerga horien kuotek aipatu garraiobide berriaren salmenta prezioan, zergak barne, agertuko zuten portzentaje bera.

Merkatu balioa zehazteko, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak onartu dituen eta zerga sortzean indarrean dauden batez besteko salmenta prezioak erabil ditzakete subjektu pasiboek. Aurreko paragrafoan aipatutako gutxipena aplikaziozkoa denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak ezarriko du zer prozedura erabili behar den zeharkako zergetan jasandako kuoten hondarrezko zenbatekoari dagokion batez besteko prezio horien zatia zehazteko.

Subjektu pasiboek aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera zehaztutako merkatu balio bat aitortzen dutenean, Zerga Administrazioak balio hori ezin izango du egiaztatu 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56. artikuluan jasotako beste bideak erabilita».

Bost. Honela idatzita geratzen dira 75. artikulua 1. eta 2. apartatuak:

«1. Aplikaziozko zerga tasak zehazteko, epigrafe hauexek ezarri dira:

1. epigrafea.

a) CO₂-aren isuri ofiziala 120 g/km-tik gora ez duten ibilgailuak, «quad» motako ibilgailuak eta 6., 7., 8. eta 9. epigrafeetan jasotako ibilgailuak izan ezik.

b) Barne errekontzako ez den motor bakarra duten ibilgailuak, «quad» motako ibilgailuak izan ezik.

2. epigrafea. CO₂-aren isuri ofiziala 120 g/km-tik gora eta 160 g/km-tik behera duten ibilgailuak, «quad» motako ibilgailuak eta 9. epigrafean jasotako ibilgailuak izan ezik.

3. epigrafea. CO₂-aren isuri ofiziala 160 g/km-tik behera ez duten eta 200 g/km-tik behera duten ibilgailuak, «quad» motako ibilgailuak eta 9. epigrafean jasotako ibilgailuak izan ezik.

4. epigrafea.

a) CO₂-aren isuri ofiziala 200 g/km edo hortik gora duten ibilgailuak, «quad» motako ibilgailuak eta 9. epigrafean jasotako ibilgailuak izan ezik.

b) CO₂-ren isuriak neurtzeko exijitu dakiekeen ibilgailuak, isuriak frogatzen ez direnean.

c) Etxebizitza gisa egokituta dauden N₂ eta N₃ kategorietako ibilgailuak.

d) «Quad» motako ibilgailuak. «Quad» moduko ibilgailutzat hartzen da lau gurpil edo gehiago izan eta eskuleku bidezko direkzio sistema duen ibilgailua, non gidaria zangalatrau eserita baitoa eta errepedetik kanpo ibiltzeko trakzio sistema jarrita baitago.

e) Uretako motoak. «Uretako mototzat» hartzen da motor batez bultzatuta doan eta pertsona batek edo gehiagok, zutik edo belauniko, krosko baten mugaren gainean eta ez barruan, gidatzeko proiektatuta dagoen urontzia.

5. epigrafea.

a) 1., 2., 3., 4., 6., 7., 8. edo 9. epigrafean sartu gabe dauden ibilgailuak.

b) Aisiako edo ur kiroletako urontzi eta ontziak, ur motoak izan ezik.

c) Hegazkinak, hegazkin txikiak eta gainerako aireontziak.

6. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartu gabe dauden motozikletak, CO₂-ren isuri ofiziala 80 g/km-tik gorakoa ez badute.

7. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartu gabe dauden motozikletak, CO₂-ren isuri ofiziala 80 g/km-tik gorakoa eta 100 g/km beherakoa badute.

8. epigrafea. 9. epigrafeko c) letran sartu gabe dauden motozikletak, CO₂-ren isuri ofiziala 100 g/km edo hortik gorakoa eta 120 g/km-tik beherakoa badute.

9. epigrafea.

a) Epigrafe honetako c) letran sartu gabe dauden motozikletak, CO₂-ren isuri ofiziala 120 g/km edo hortik gorakoa badute.

b) Epigrafe honetako c) letran sartu gabe dauden motozikletak, CO₂-ren isuri ofiziala frogatu gabe badute.

c) EEE potentzia 74 kW (100 ZP) edo hortik gorakoa duten motozikletak, CO₂-ren isuri ofiziala edozein izanik ere.

2. Zerga tasa hauek aplikatuko dira:

1. eta 6. epigrafeak. 100eko 0.

2. eta 7. epigrafeak. 100eko 4,75.

3. eta 8. epigrafeak. 100eko 9,75.

4. eta 9. epigrafeak. 100eko 14,75.

5. epigrafea. 100eko 12».

5. artikulua. *Hiri garraio publikoarekin eta errepide bidezko garraioarekin lotutako aseguru eragiketak Aseguru Primen gaineko Zergan hobaritzea.*

2008 eta 2009an, hiri garraio publikoarekin eta merkantzien edo bidaiarien errepide bidezko garraioarekin lotuta egiten diren aseguru eragiketek % 75eko hobaria izango dute Aseguru Primen gaineko Zergan, honako zirkunstantziak betetzen direnean:

a) Honako arriskuak estaltzea: Bidaiarien istripu pertsonalak, garraio ibilgailuek jasandako kalte propioak eta haiek erabilpen eta zirkulazioagatik duten erantzukizun zibila, garraiatutako merkantzien gaineko kalteak edo garraiolariaren beste edozein erantzukizun zibil.

b) Aseguruagatik ordaindu behar den primaren sortzapena 2008an eta 2009an gertatzea, gehienez urtebeterako estaltzea, eta estaldura-aldia ekitaldi berean hastea.

Aseguru Primen gaineko Zerga aurreko eran hobaritutako aseguruak kontratatzen dituzten pertsonen jasanaraztean, entitate aseguratzailerik bereizita adieraziko dute ordainagirian zein den karga tasa aplikatuta ateratzen den kuota eta zein den hobariaren aplikaziotik ateratzen dena.

2008ko abenduaren 26aren ondorengo bi hilabeteetan, entitate aseguratzailerik zergaren jasanarazpena erregularizatu beharko dute, hobarirako eskubidea duten aseguru hartzaileei hobaria aplikatuz 2008. urtearen hasieratik 2008ko abenduaren 26ra arte sortutako primei dagokienez.

6. artikulua. Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa berezia nekazari eta abeltzaintzat. Bat.

a) Ondorengo b) letran jasotako baldintza betetzen denean, Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskubidea aitortuko zaie nekazariari, baldin eta kuota horiek 1998ko martxoaren 3ko 20/98 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko 1992ko abenduaren 28ko 38/92 Legearen xedapenetara egokitzen duenak, 50.1 artikuluen 1.4 epigrafean jasotako tasan zergapetutako gasolio erosketak direla-eta ordaindu edo jasan badituzte 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean.

b) Aurreko a) letran jasotako itzulketa bidezkoa izango da letra horretan aipatutako gasolioaren batez besteko prezioa 2004ko urtarrilaren 1etik 2005eko abenduaren 31ra bitartean, nekazariak jatorrian jasotako prezioen indizea gehituta, ez bada handiagoa gasolio horrek 2007ko urriaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitartean izandako batez besteko prezioa baino. Kontuan hartu beharreko prezioetan, ez dira sartuko horiei gehitutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak.

c) Kuotak itzultzekotan, kopuru hau itzuliko zaie: 1.000 litroko 78,71 euroko tasa nekazaritzan –barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne– aipatu epean benetan erabilitako gasolio bolumena (mila litrokotan adierazita) 0,998 koefizientearekin biderkatuz ateratzen den emaitzari dagokion oinarri baten gainean aplikatuz lortzen den emaitza.

Bi. Aurreko bat apartatuan jasotako itzulketaren ondorioetarako, pertsonak edo entitateak nekazaritzat hartuko dira baldin eta, 20/1998 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluko 1.4 epigrafearen arabera zergapetutako gasolioa adierazitako epean erabiltzeko eskubidea izanik, hura nekazaritzan –barazkigintza, abeltzaintza eta basogintza barne– karburante gisa benetan erabili badute, eta gainera, jarduera horietan aritzeari begira, inskribatuak egon badira 2005eko martxoaren 8ko 2/05 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, hirugarren xedapen gehigarrian aipatutako zergapekoen zentsuan.

Hiru. Aurreko bat.b) apartatuan jarritako baldintza bete izana Ogasun eta Finantza Departamentuak egiaztatuko du. Behin baldintza bete izana egiaztatuta eta itzulketa bidezkoa izanda, Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak erabakitako prozeduraren bidez gauzatuko da itzulketa, eta berarekin ekar dezake interesatuek zerga aitortpenak, zentsu arlokoak barne, aurkeztu behar izatea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Titulu bihurtzeko fondoek sozietate eragiketen modalitatea salbuestearen efektuak.

Hipotekak titulu bihurtzeko fondoek eta aktibo finantzarioak titulu bihurtzeko fondoek egiten dituzten eragiketa guzien sozietate eragiketen modalitatearen salbuespena –1987ko abenduaren 30eko 18/87 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 45.1.B).32 artikuluan ezarria– aplikaziozkoa izango zaio haiek eratu zirenetik aurrera egindako edozein eragiketari, eratze eragiketa barne.

Bigarrena. Entitate taldeko erregimen bereziari uko egitea.

2009ko urtarrilaren 31ra bitartean uko egin diezaiokete entitate taldeko erregimen bereziari 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 163. sexies artikuluan jarritako baldintzen arabera entitate taldeko erregimen berezia aukeratu duten entitateek; ondorio horietarako, ez zaie aplikaziozkoa izango aipatu artikuluetan jarritako hiru urteko epea.

Hirugarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria aldatzea.

Zergapeko eragiketak egiteagatik jasanarazitako kuotei dagozkien erabat edo zati batean kobraezinak diren kredituen titular diren subjektu pasiboek, 2008ko abenduaren 26an haientzat zerga sortu denetik urtebete baino gehiago baina bi urte eta hiru hilabete baino gutxiago igaro denean, oinarri ezargarria murriztu dezakete aipatu dataren ondorengo hiru hilabeteko epean, baldin eta betetzen badira 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak jasota xedapenetara egokitzen duenak, 80.lau artikuluan jartzen dituen beharkizun guztiak, salbu artikulua horretako 1. baldintzan jasotako beharkizuna.

Ezin izango dira aurreko paragrafoan jasotakora bildu 2008ko abenduaren 26aren ondorengo hiru hilabeteko epean 1992ko abenduaren 29ko 102/92 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legeak jasota xedapenetara egokitzen duenak, 80.hiru artikuluan jasotakoaren arabera oinarri ezargarria murriztu dezaketen subjektu pasiboak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Zerga alorreko presazko foru dekretu arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, nahiz eta horrek ez duen eragotziko bere artikuluetan espresuki jasotako ondorioak sortzea.

Donostia, 2009ko urtarrilaren 13a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Pello Gonzalez Argomaniz.

(137) (300)